

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Aguraingo eskolan musika ikasketak egiteko laguntza deialdia

DDBN(Identif.): 583984

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/583984>).

Iruraiz-Gaunako Udalak, 2021eko irailaren 7an egindako osoko bilkuran, erabaki du Aguraingo musika eskolan 2020-2021 ikasturtean egindako ikasketetarako laguntza deialdi hau onestea eta argitaratzea. Hona hemen deialdiaren oinarriak:

Xedea

Iruraiz-Gaunako udalerrian erroldatutako pertsonen Aguraingo Udalak 2020/2021 ikasturtean antolatutako musika irakaskuntzetan izena emateak sortutako gastuetan laguntzea eta batera finantzatzea.

Onuradunak

Onuradun izango dira diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik gutxienez sei hilabetez segidan Iruraiz-Gaunako udalerrian erroldatuta egon diren pertsonak, 2020-2021 ikasturtean Aguraingo Udalak egindako musika jardueretara joaten badira.

Onuradunak Aguraingo Udalarekiko zerga betebeharrak beteta izan behar ditu.

Oinarri arautzaileak

Zenbatekoa.

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahalko du:

* Zenbatekoa: Agurainen erroldatuta dagoen batek eta erroldatuta ez dagoen batek ordaintzen duten kuotaren aldea, eta 50 euro gehiago emango da matrikulatuta dagoen familia unitateko kide bakoitzeko, bai eta 50 euro gehiago ere ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna badu. Onuraduna Aguraingo Udalak antolatutako musika irakaskuntzetan inskribatuta dagoenean, gehieneko muga udalaren aurrekontu aplikazioaren zenbatekoa izango da. Onetsitako aurrekontuko aplikazioa nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hau da: 341.422.001 eta 002. Deialdi honetako zuzkidura 3.000 eurokoa da.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Iruraiz-Gaunako udalean aurkeztu beharko dira, 2021eko urriaren 15a baino lehen.

Azilu, 2021eko irailaren 8a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAJA CUBILLO